

## GARDENTASUNA: INFORMAZIORA IRISTEA

<b>a) Oinarri juridikoa</b>	<p>DBEO: 6.1.c) Tratamendua beharrezkoa da tratamenduaren arduradunari aplikagarria zaion lege-eginbeharra betetzeko.</p> <p>Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Legea.</p> <p>Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legea.</p>
<b>B) Tratamenduaren xedeak</b>	<p>Herritarrek informaziora iristeko egindako eskaerak erregistratu eta izapidetzea Gardentasunari, informazioa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen babesean.</p>
<b>c) Kolektiboa</b>	<p>Informazio publikoaren eskatzaileak.</p>
<b>d) Datuen kategoriak</b>	<p>Izen-abizenak, IFZ/NAN, helbidea, telefono zenbakia eta sinadura.</p>
<b>e) Hartzaileen kategoria</b>	<p>Nafarroako Gardentasun Kontseiluari eta organo judizialei.</p>
<b>f) Nazioarteko transferentzia Nazioartekoa</b>	<p>Ez dira datuen nazioarteko transferentziak aurreikusten.</p>
<b>g) Ezeztatze epea</b>	<p>Beharrezkoa den bitartean mantenduko dira eskatu ziren garaiko xedea betetzeko eta xede horretatik zein datuen tratamendutik erator litezkeen erantzukizunak betetzeko. Artxibo- eta dokumentazio-araudian xedatutakoa aplikatuko da.</p>
<b>h) Segurtasun neurriak</b>	<p>Ezarri diren segurtasun neurriak bat datoz Administrazio Elektronikoaren esparruan Segurtasun Eskema Nazionala arautzen duen urtarrilaren 8ko 3/2010 Errege Dekretuaren II. Eranskinean (Segurtasun neurriak) aurreikusten direnekin eta Barañaingo Udalaren datuen babeserako eta informazioaren segurtasunerako politika osatzen duten dokumentuetan azaltzen direnekin.</p>
<b>i) Entitate arduraduna</b>	<p>Barañaingo Udala</p>